

Mintzalagun talde gehiago sortzeko erronka

Eskualdean 30 urte egin ditu egitasmoak, eta urtero 100 herritar inguruk hartzen dute parte, hainbat herritan banatutako taldeetan; aurten ere noiznahi eta nonahi euskaraz solasteko gonbidapena luzatu dute // 4

Ibarrako piperra ardatz hartuta, azoka berezia egingo dute igandean

Ibarrako bost gunetan banatuko dute azoka, eta horietan, 30 postu baino gehiago, abereak, jan-edana, tailerrak nahiz piperrarekin eta eztiarekin lotutako lehiaketak izango dira // 2



ALKIZA

SORTZAILEAK AUKERATUAK

Miriam Loidiren 'Ehun-bizipenak' eta Nomad Studioko Eli Garmendia eta Carlos Pericasen —irudian— 'Alkizako Memoria' proiektuek eskuratu dute Sormenaren Kabia beka; hiruna asteko egonaldiak egingo dituzte sortzaileek Alkizan // 6

20. Berrobira Krosa izango da jokoan larunbat arratsaldean

17:00etan hasiko da 7,5 kilometroko helduen proba, eta aurretik haurren lasterketak egingo dituzte; 'Herrikrosa.eus' webgunean eman behar da izena // 7

sukha

- Masajeak
- Oin erreflexologia
- Terapia energetikoak
- Terapia sakro-kraniala
- Entrenamendu pertsonala
- Pilates / Yoga

Larrea auzoa, 8B behea • Villabona
650 012 674 • info@sukha.eus
www.sukha.eus



solumobel

1.990€* -tik hasita

**egokitu zure
sukaldea
zure bizitzara**

Adinekoentzat **segurtasuna** eta **irigarritasuna** ematen dituen soluzioa.

*Basic-pack eguneraketa.

Informazio gehiago:

www.solumobel.com



altzari egokitu soluzio integralak

Bost gunetan banatuta, igandean hartuko du Ibarrak azoka berezia

23. azoka izango da igandekoa, eta 30 postu baino gehiago egongo dira; Erraketistak frontoian egingo dituzte lehiaketak, eta plazan egongo dira eskualdeko abereak



Pasa den urteko azokako postuetako baten irudia. ENERITZ MAIZ

Erredakzioa Ibarra

Abuztuan herrietako jaiek protagonismoa izan zuten bezala, irailan sartuta, pixkana azoka berezia ari dira indarra hartzen. Igande honetan, esaterako, Ibarrran egingo dute azoka. Iraileko hirugarren igandean egin ohitu dute bertan azoka, Hauspoa elkarteak antolatuta, eta aurten goa 23.a izango da. Ohi bezala, herriko ikur den piperra izango da ardatz, horren bueltako lehiaketekin eta dastatzek ere aukera izango delarik. Horrekin batera, artisau eta elikagai postuak, abereak edota tailerrak izango dira goiz osoan, herriko hainbat gu-

netan banatuta. Azokak 10:00etan zabalduko ditu ateak eta 14:00ak arte egongo da eskaintzen duenaz gozatzeko aukera.

Aurtengoan abereak San Bartolome plazan jarriko dituzte. Bertan eskualdeko hegaztiak, behiak, txekorrak, ahuntzak edota poniak bertatik bertara ikusteko aukera izango da.

Plazatik aterata, Araneke iturri inguruan taloa eta sagardoa dastatzeko aukera izango da, Uzturpe ikastolaren eskutik. Gainera, arropa postuak ere izango dira. Aranen bertan, 11:30ean Rafa Gorrotxategiren eskutik txokolate tailerra izango da, 8-12

urte bitarteko gaztetxoei zuzendua.

Bestalde, Emeterio Arreserako bidean, herriko artisten lanak jarriko dituzte ikusgai. Kultur etxeko ikastaroetako partaideek ikasturtean zehar eginiko lanak dira jendaurrean jarriko dituztenak, hala nola, pintura, ehoziri eta berritutako altzariak. Gorputz pintaketa ere egingo dute.

Emeterio Arrese plazan, berriz, artisauen eta bertako elikagaien postuak egongo dira. Elkartetik zehaztu dutenez, 30 postu baino gehiago izango dira.

Jan edanerako aukera ere izango da bertan, Xepla elkarte-kideek txosna jarriko baitute.

AZOKAKO GUNEAK

Irailak 17, igandea

San Bartolome plaza. Eskualdeko abereak: hegaztiak, behiak, txekorrak, ahuntzak, poniak...

Arane iturri ondoan. Taloa eta sagardoa dastatzeko aukera, Uzturpe ikastolaren eskutik. Rafa Gorrotxategiren eskutik, txokolate tailerra, 11:30ean.

Emeterio Arrese bidean. Herriko artisten lanak ikusgai: pintura, ehoziri eta berritutako altzariak. Gorputz pintaketa ere izango da.

Emeterio Arrese plaza. Artisauak eta bertako elikagaiak, 30 postutik gora. Piper freskoa erreta eta txorizo pintxoak. Tolosaldeko XXV. Ezti Lehiaketa. Sari banaketa, 12:30ean.

Erraketistak frontoia. Ibarra-ko piperraren lehiaketa gastronomikoak. Sari banaketa, 13:30ean.

Hain zuzen, piper freskoa erreta jan ahal izango da, eta berritasun moduan, aurtun txorizo pintxoak ere eskainiko dituzte. Emeterio Arrese plazak Tolosaldeko XXV. Ezti Lehiaketa ere hartuko du.

PIPERRAREN LEHIAKETA

Ibarra-ko piperrarekin loturiko lehiaketak Erraketistak frontoian egingo dituzte, Xepla elkarteak antolatuta. Pintxoaren lehiaketa 17.a izango da, eta gildarenak, berriz, bosgarrena. Omenaldietarako tarteak ere izango da, izan ere, Hauspoa elkarteak epaimahai lanetan urte luzez aritu diren Matias Gorrotxategi eta Hilario Arbelaitz sukaldariak omenduko ditu.

Hauspoa elkarteak aldarrikatu du aurtun ere ekoizpen ekologikoaren eta jasangarriaren alde egiten jarraitu dutela, eta baita tokiko eskulangintzaren alde ere. Era berean, herritar guztiak animatu ditu igandeko azokara gerturatzen.

Udaletxeko teilatuko eta ganbarako lanekin ari dira Gaztelun

Teilatua konpondu eta ganbara egokituko dute; 96.000 euroko aurrekontua dute lanek; ostiralean inauguratuko dute

Erredakzioa Gaztelu

Batzuentzat udako oporrak ez dira aitzaki izan lana eteteko. Horren adibide da Gaztelu, izan ere, hilabete horietan hainbat obra jarri dituzte martxan udal eraikinean. Alde batetik, teilatua eraberritzen hasi dira, «egoera txarrean zegoelako eta segurtasuna bermatzeko». Bestetik, eraikin bereko ganbara ere egokituko dute, «etorkizunean ekin-tza desberdinak antolatze-ko asmoarekin».

Eider Olazar alkateak esan duenez, «Gaztelu bezalako herri txiki batentzako aukera handia da horrelako beste espazio bat izatea, eta horregatik, zuku gehien ateratzen saiatuko gara. Oso espazio atsegina da, gainera». Obra Garmendia enpresari esleitu zaio lizitazio bidez. Guztira 96.000 euroko aurrekontua dute lanek, eta Jaurilaritza zein Diputazioko diru laguntzekin egingo dute.

Ostiralean, hilaren 15ean egingo dute, 17:30ean hasita, ganbara zein herri kirol museoa inauguratzeko ekitaldia. Kalejira egingo dute, eta ostatuko atarian eraikustaldia egingo dute kirolari beterano nahiz gazteek, segan, aitzorran, trontzan, ingudean edota korrika. Lan horiek amaitu ostean, 19:30ak aldera, ostatuan mokadutxo hartuko dute bertaratzaren direnek.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



BOSGARREN URTEURRENA

**Oñeka Auzmendi
Aierbe**



2018ko irailaren 13an hil zen 26 urterekin

Betirako gure bihotzean.

Zure sendia

ATAUN, 2023ko irailaren 13an.

Kultur eskaintza zabala eskura, ikasturte honetarako

Villabonako Udalak ikasturte guztiari begirako ikastaroak antolatu ditu, baita bi ikastaro labur ere; irailaren 27ra bitarte eman daiteke izena

Erredakzioa Amasa-Villabona

Hasi berri den ikasturtera begirako ikastaro eskaintza zabala prestatu du beste behin Villabonako Udalak.

Ikastaroak urrian hasiko dira eta gehienak ikasturte guztian zehar eskainiko dituzte. Bi ikastaro izango dira laburragoak; Virginia Ameztok eskainiko duen serigrafia tailerra eta oinarritzko argazkigintza murgiltzekoa. Argazkigintza tailerrean mugikorrarekin argazkiak ateratzen dituztenek eta argazkigintza analogikoa lantzen dutenek izango dute lekua.

IKASTURTE OSORAKO

Gainontzean dantzari lotutako funky eta ballet ikastaroak antolatu dituzte, helduei zein haurrei begirako antzerki tailerrak, eskulanak, egur lanketa, zaharberritzea eta arte aplikatuak, haur zein helduei begirako pintura ikastaroak eta baita joskintza tailerra ere. Irakasleei dagokienez, funky tailerra Eneko Martijak eskainiko du, balleta Miren Lizeagak, antzerkia Iraitz Lizarragak, egur lanketa Jon Iñaki Ormazabalak, zaharberritzea eta arte aplikatuak Diana Vasinak, pintura Hodei Iparragirrek eta joskintza Ane Igerabidek.

Ikastaroetan izena emateko epea irailaren 27an amaituko da eta Villabona.eus webgunean dagoen formularioa betez egin ahal izango da.



Beatriz Unzué alkatea eta Joxean Cubero kultur teknikaria, eskaintzaren berri ematen duen kartela eskuetan dutela. ATARIA

ESKAINITZA

Ikasturte osoko ikastaroak

Funky. 6 eta 12 urteko gazteentzat urriaren 16tik aurrera. Astelehene-tan 17:15etik 18:15era (2015 eta 2017ra bitarte jaiotakoak) eta 18:15etik 19:15era (2011 eta 2014 artean jaiotakoak). Villabonan erroldatuek 95 euro eta 125 gainontzekoek.

Balleta. 6 eta 12 urtekoentzat urriaren 17tik aurrera. Astearteetan 17:15etik 18:15era (2015-2017 urteen artean jaiotakoak) eta 18:15etik 19:15era (2011 eta 2014 urteen artean jaiotakoak). 80 euro Villabonan erroldatutakoak eta 110 gainontzekoek.

Antzerkia haurrentzat. 8 eta 12 urte artekoentzat urriaren 19tik aurrera, ostegunetan 17:30etik 19:00etara. 115 euro herrian erroldatutakoak eta 140 gainontzekoek.

Antzerkia helduentzat. 16 urtetik gorakoentzat urriaren 19tik aurrera, ostegunetan 19:00etatik

21:00etara. 150 euro herrian erroldatutakoak eta 175 gainontzekoek.

Eskulanak haurrentzat. 6 eta 10 urte artekoentzat urriaren 11tik aurrera, asteazkenetan 17:30etik 19:00etara. 105 euro herrian erroldatutakoak eta 135 gainontzekoek.

Egur lanketa helduentzat. 90 orduko ikastaroa, urriaren 5etik aurrera, astelehene-tan 15:30etik 18:30era, eta ostegunetan 09:15etik 12:15era eta 15:30etik 18:30era. 247,61 euro herrian erroldatutakoak eta 349,02 gainontzekoek.

Zaharberritzea eta arte aplikatuak. 90 ordu. Urriaren 16tik aurrera, astelehene-tan 17:00etatik 20:00etara. 209,20 euro herrian erroldatutakoak eta 294,86 gainontzekoek.

Pintura helduentzat. 14 urtetik gorakoentzat urriaren 11tik aurrera. 60 ordu. Asteazkenetan 15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era. 139,82 euro herrian erroldatutakoak eta 212,40 gainontzekoentzat.

Pintura haurrentzat. 4 eta 12 urte artekoentzat urriaren 19tik aurrera. 30 orduko ikastaroa. Ostegunetan 17:30etik 18:30era (4-7 urte artekoak) eta 18:30etik 19:30era (8-12 urte artekoak). 80 euro herrian erroldatutakoak eta 105 gainontzekoek.

Joskintza. 60 orduko ikastaroa urriaren 19tik aurrera. Ostegunetan 10:00etatik 12:00etara, 15:00etatik 19:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. 205 euro herrian erroldatutakoak eta 280 gainontzekoek.

Ikastaro laburrak helduentzat

Serigrafia. 12 ordu, azaroaren 7tik 28ra, asteartetan 18:30etik 21:30era. 40 euro herrian erroldatutakoak eta 50 euro gainontzekoek.

Oinarritzko argazkigintza. 10 ordu urriaren 21etik azaroaren 18ra, larunbatetan 10:00etatik 12:00etara. 35 euro herrian erroldatutakoak eta 45 gainontzekoek.

Haur zein helduei begirako ikastaroak aukeran

Irailaren 15etik 27ra eman daiteke izena Zizurkilgo kultur ikastaroetan; udal bulegoetan eman behar da izena

Erredakzioa Zizurkil

Haur, heldu zein jubilatuei begirako ikastaroak antolatu ditu Zizurkilgo Udalak. Ikastaro batzuk Atxulondo Kultur Etxean eskainiko dituzte eta beste batzuk Iriarte Kultur Etxean. Izena irailaren 15etik 27ra eman behar da udal bulegoetan, jubilatuei begirakoetarako izan ezik, horien izen ematea Elizpe Jubilatu Elkartean egin behar da.

ATXULONDO KULTUR ETXEA

Haurrei begira antzerki tailerra antolatu dute eta ostiraletan izango da 18:00etatik 19:30era. Helduentzako berriz, sei ikastaro antolatu dituzte; patchwork-joskintza sortzailea, yoga, hipopresibo ikastaroen hastapeneko maila, dancehall-a, sabel dantza eta memoria lantzeko tailerra. Azken hori doakoa izango da. Jubilatuek gimnasia eta yoga egiteko aukera izango dute.

IRIARTE KULTUR ETXEA

Helduen gimnasia eta memoria tailerra (hau ere doan) eskainiko dituzte Iriarten, eta baita Lehen Hezkuntzan dauden haurrei begirako Land-Art tailerra. Tailer horretan natura eta artea lotuko dituzte.

Bestalde, Bukalai Dantza Taldeak ere ireki du euskal dantzak ikasteko tailerretarako izena emateko epea.

Hilberriak eta urteurrenak



Karmen Garro Artola

Irailaren 11n hil zen, 63 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Bere senarra: Jesus Mari Tolosa; gurasoak: Pablo (†) eta María; ezkon gurasoak: Jose Miguel (†) eta Valentina; anai - arrebak: Jose Manuel eta Sorkunde, Ana eta Aitor; ezkon anai-arrebak: Adrian, Edurne eta Jose; ilobak: Alaitz eta Aitor, Olaia, Aiora eta Kepa, Eider, Ugaitz; etxeko osaba: Joxe; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela, ASTEAZKENA arratsaldeko SEIETAN, HERNIALDEKO ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parrokian izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HERNIALDE, 2023eko irailaren 13an.

Oharra: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da, ASTEAZKENA eguerdiko 13:00ak arte.



Ma Pilar Irastorza Larreta

‘La rubia de Amebi’

- G.B. -

*Mugaertz honek bizi gaitu nahitaez:
Hemen herria amaitzen da
eta hor hasten besterria.*

Sukaldari taldeak bihotz-bihotzez.

Bidean egingo dugu topo.



ATAUN, 2023ko irailaren 13an.



Iruran aurkeztu dute Tolosaldeko Mintzalaguna egitasmoaren ikasturte berria; eskualdeko udaletako ordezkariak bildu dira aurkezpenean. J.M.

GURASOLAGUNA AURTEN AMASA-VILLABONAN

Mintzalaguna egitasmoaren aldea berri bat jarri dute aurten martxan Amasa-Villabonan. Gurasolaguna izena jarri diote eta Maite Arregi, Amasa-Villabonako euskara teknikariak eman du asmoaren berri: «Gaur egun haurrek kirol eta ikastaro mordo batean ematen dute izena, eta haurrak ekintzetan murgilduta dauden bitartean, gurasoak inguruan izaten dira. Bada, haurrak ekintzetan dauden tarte horiek aprobetxatu nahi ditugu Mintzalaguna talde berriak sortzeko.

Jende berria inguratu nahi dute egitasmoa, «izan euskara praktikatu nahi duten gurasoak, izan euskaraz ondo moldatzen diren guraso boluntarioak», esan du Arregik. Kiroldegian, frontoian, kultur etxean zein musika eskolan haurrak uzterakoan mahaiaren bueltan elkartzeko eta euskaraz jarduteko aukera izango dela nabarmendu du euskara teknikariak. Parte hartu nahi dutenek, Amasa-Villabonako Euskara zerbitzuan izango dute informazio gehiago.

Mintzalaguna egitasmoak ikasturte berria abiatu du

Tolosaldean 100 pertsonak hartzen dute parte eta talde gehiago sortu nahi dituzte; Galtzaundin edota udaletxeetan eman daiteke izena

Jon Miranda

Tolosaldeko Mintzalaguna egitasmoak ikasturte berriari ekin dio. Euskara noiznahi eta nonahi praktikatzeko gonbidapena

luzatu diete herritarrei. Lagunartean «modu eraginkorrean eta giro ezin hobean» euskaraz aritzeko aukera izango dute izena ematen dutenek.

Tolosaldean egitasmoak 30

urte bete ditu eta ia 100 kidek hartzen dute parte, besteak beste, Tolosan, Amasa-Villabonan, Ibarra, Zizurkilen, Anoetan eta Iruran antolatutako taldeetan. Talde gehiago sortzeko borondatea agertu dute egitasmoa babes-ten duten udaletako ordezkariak eta horretarako izena ematera animatu dituzte bidelari eta bidelagunak. Galtzaundi Euskara Taldean eta Tolosaldeko udaletxe guztietan izango da horretarako aukera.

Astean ordubetez, hizketaldi lasaian biltzen dira bidelagunak eta bidelariak. Noelia Lataburu Irurako euskara zinegotziak bildutako ordezkarien izenean hitz egin du eta esan du bidelariak euskara praktikatzeko dutela helburu, «lotsa gaindituz, akatsak egiteari beldurra kenduz, hiz-

kuntza ohiturak aldatuz eta erabileran urratsak emanez». Nabarmendu duenez, bidelagunei, berriz, «euskara praktikatu nahi duen bati laguntzearen pozak betetzen die barrua». Zinegotziaren ustetan asko dira euskarazko oinarri bat izan bai, baina praktikan jartzeko aukerarik ez dutenak. Hain zuzen, hutsune hori betetzeko eta lagun artean euskaraz aritzeko aukera bermatu nahi dute Mintzalagun taldeetan.

EKINTZA OSAGARRIAK

Asteroko hitzorduaz gain, ikasturtean zehar beste ekintza osagarri batzuk ere antolatzen dituzte, Mintzalagunean parte hartzen duten gainerako taldeekin batera. «Urtero eskualdeko herriren batera bisita gidatu bat

izaten da. Iaz Amezketara joan ginen, duela bi urte Tolosako Alde Zaharra bisitatu genuen eta egon izan gara Asteasu edota Alizon ere. Gustu handiz bisitatuko ditugu eskualdeko txokoak», esan du Irurako euskara zinegotziak. Eskualdetik kanpora ere atera izan dira eta Durangoko Azokara edota sagardotegira ere antolatu izan dituzte irteerak.

Euskaldunen artean harreman berriak sortu eta indartzeko asmoz antolatzen dute Mintzalaguna egitasmoa. 20 talde inguru sortuta daude Tolosaldean, eta Euskal Herri osoan, ia 8.000 lagun dira parte hartzen dutenak. «Asko gara, eta aurten, nonahi eta noiznahi euskaraz egin nahi dugunak gehiago izateko asmoz gaude», aipatu du Lataburuk.

Mintzalaguna egitasmoan parte hartu nahi dutenek Tolosan Galtzaundi Euskara Taldeak duen egoitzara jo beharko dute. Bestela udaletxe guztietan ere izango da horretarako aukera. «Zalantzarik izanez gero, galdetu lasai eta ez galdu aukera. Udaletako eta Galtzaundiren webguneetan ere informazio gehiago topatuko duzue», esan dute antolatzaileek. Izen emateko deia luzatu dute proiektuaren bultzatzaileek: «Zurekin, noiznahi, nonahi, Mintzalaguna».



zozketa

Atarikideentzat **3 liburu** ditugu



EMARIAK
Emakumeek Historian
zehar egin dituzten
ekarpenen bilduma

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Ahalduntze taldea jarriko dute martxan Zizurkilen

Galtzaundi euskara taldeak 'Euskaraz bizi gaitezke' izenburupean sei saio eskainiko ditu urritik abendura bitarte; astelehenean irekiko dute izen ematea

Jon Miranda

Aurretik Tolosan egin bezala, *Euskaraz bizi gaitezke* izeneko euskaldunen ahalduntze tailerra jarriko du martxan Galtzaundi Euskara Taldeak Zizurkilen. Tailerrean izena ematen dutenek euskaraz bizitzeko topatzen dituzten zailtasunei aurre nola egin ikasiko dute, besteak beste. Astearte arratsaldeetan izango dira saioak Atxulondo kultur etxean 18:00etatik 20:00etara, hamabostean behin. Sei hitzordu izango dira guztira eta izen emateak Galtzaundi Euskara

Taldeko bulegoan egin beharko dira. Argibide gehiago nahi dituenak 943 65 50 04 zenbakira hots egin dezake edo galtzaundi@galtzaundi.eus helbidera idatzi.

Galtzaundik aurreko bi urteetan ere martxan jarri izan ditu ahalduntze taldeak. Euskara taldearen esanetan gaztelaniaz hitz egiten dugun kasu askotan euskaraz egin genezake: «Maiz gertatzen da gaizki sentitzen garela hori egiten dugunean, edo kezka izaten dugula besteek zer pentsatuko. Estres linguistikoa esaten zaio horri». Ahalduntze saio-



Aurreko ikasturtean Tolosan martxan jarri zuten taldean parte hartu zuten herritarrak. J.M.

etan norbere barruak zergatik mugitzen diren identifikatzen laguntzen diete euskal hiztunei. Antolatzaileen esanetan, prozesu hori besteekin batera egitea da gakoa.

Saioek bi zati izaten dituzte, bata praktikoa eta bestea teoriakoagoa. Batetik, norberak euska-

raz bakarrik bizitzeko dituen zailtasunak kontatuko ditu «modu informalean», eta erronda horretan, partaideen arteko interakzio bidez, norberak gertatzen zaiona hobeto ulertu ahal izango du. «Muga horiek edo erosotasun falta horren arrazoiak izan daitezke politikoak,

psikologikoak, emozionalak edota egiturazkoak. Zergati horiek azaldu eta egoera horien aurrean nola jokatu daitekeen azalduko da tailerrean», esan dute Galtzaunditik. Tailerrean parte hartu nahi dutenek irailaren 29ra arteko epea dute izen emateko.



«Egoera horiek modu natural eta lasai batean kudeatzea garaipen bat da»

BEÑAT AZALDEGI LAKUNTZA
PARTE HARTZAILEA

J.M.

Aurreko ikasturtean Galtzaundik Tolosan antolatutako *Euskaraz bizi gaitezke* euskaldunen ahalduntze tailerrean parte hartu zuen Beñat Azaldegilakuntzak (Tolosa, 1994).

Zergatik erabaki zenuen tailer honetan parte hartzea?

Gure hizkuntza hautuen inguruan kezka dugun pertsonak elkartu eta horren inguruan hausnartzeko aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen. Nire kezkak partekatzeak aukera emango zidalako eman nuen izena.

Zein profiletako pertsonak hartu zenuten parte saioetan?

Zorionez profil nahikoa diferenteko jendeak eman zuen izena eta hori oso aberasgarria izan zen. Tailerrean parte hartzeko motibazioak ere ezberdinak ziren gutako bakoitzaren kasuan. Bageunden kezka pertsonalak bultzatuta gerturatu ginenak, baina baziren baita euren jardun profesionalean hizkuntzaren erabilerekin kezka zutenak ere. Adibide bat jartzearen, Altzako eskola publikoko langile bat zen parte hartzaileetako bat eta bizi zuen estres linguistikoaz jardun zitzaigun.

Nork gidatuzituen saioak?

Galtzaundiko Imanol Artolak. Egia esan, oreka ona bilatu zuen, guretzat zerbait gozoa eta aldi berean emankorra izan da. Kezkek

konpartitu bai, baina batez ere gure hizkuntza hautuen inguruko erabakiak hobeto identifikatzeko tresnak eman zizkigun. Gainera hasieratik argi adierazi zigun behin estres egoera horiek identifikatuta, norberak erabakitzen duela egoerari aurre egin edo ez. Kontua ez da geure burua zigortzea hizkuntza hautuari eutsi ezin diogulako.

Egoera ezeroso horiek erraza go identifikatzen dituzu orain?

Bai. Guk uste duguna baino egoera gehiagotan bizi dugu estres linguistikoa euskal hiztunok. Askotan pentsatzen dugu jende ezezagunarekin pasatzen zaizkigula horrelakoak, baina gehienetan gure inguruko jendearekin bizi ditugu egoerarik ezerosoenak. 'Nik zergatik egiten dut hautu hau? Zergatik nago eroso honaino eta zergatik egiten ditut hementik aurrera beste hautu batzuk? Zergatik ez dut euskaraz jarraitzen?', galdera horiei erantzuna topatzen lagundu zidan tailerrak. **Ikastaroa egin aurretik euskarazko hautuari eustea zein tesuingurutan zitzaizun zailagoa?**

Konturatu nintzen hizkuntza hautuari eroso eta lasai eusteko oztipo gehienak emozionalak nituela. Konplexuak ere azaltzen dira horrelakoetan. Ikastaroan asimetria asko hitz egin genuen. Euskal hiztunok joera dugu hizkuntza aldatzeko parean duguna eroso sentitu dadin, baina ez du zertan; biok elkar ulertzen badugu eutsi diezaiokegu euskarari. Nire kasuan konturatu nintzen, euskaraz horren ongi moldatzen ez diren lagunekin gaztelania erabiltzeko joera nuela, edo gaztelaniazko makuluak erabiltzekoa, behintzat. Uste nuen haiek eroso senti zitezen egiten nuela, baina tailerraren ostean konturatu naiz, euskaraz jarraitzea dela haiek eroso sentiarazteko modua. Azken batean, norbera den bezala agertzea baino modu hobeagorik ez dago eta ni euskaraz naiz. Euskaraz ariko ez banintz ez nintzateke ni %100ean.

Zertan lagundu dizu ahalduntze tailer honek?

Lehen esan bezala egoera horiek identifikatzen lagundu dit. Nik nahikoa argi dut hizkuntza hautua, baina hautu horrekin lasai

eta eroso sentitzea ez da erraza. Estres momentu horiek ekiditeko, edo ahal den neurrian behintzat, lasaitzeko, tresna batzuk eman zizkigun Imanolek. Nuen estresa ikaragarria izan gabe ere egoera horiek modu natural eta lasai batean kudeatzea niretzat garaipen bat da.

Behin tailerrean parte hartuta euskara gehiago egiten duzu?

Tolosaldean, neurri handi batean, euskaraz bizitzea ahalbidetzen digun ingurune bat daukagu. Ez nuke esango euskara gehiago edo gutxiago egiten dudanik, baino positiboago bizi dut orain eta hori kutsatu egiten da. Alde horretatik polita izan da, ez delako besteei begirako ariketa bat izan, norbere buruarekin egin beharrekoa baizik.

Nola animatuko zenituzke herritarrak parte hartzera?

Estres kasu zehatzak identifikatu, haiei nola aurre egin ikasi eta norberari begirako konpromiso batzuk hartzen ikasi dut tailer honetan. Gainera kezka berdintsuak dituzten pertsonak ezagutu ditut eta hori beti da ederra. Ingurune berri bat eman dit.

Nomad Studiokoek eta Miriam Loidik egingo dituzte egonaldiak

Sormenaren Kabia beka eskuratu dute bi proiektuk eta hiruna asteko egonaldiak egingo dituzte Alkizan, iraila eta azaroa bitartean, bakoitzak bere proiektua garatzeko

Irati Saizar Artola

Alkizako Udalak seigarren aldiz jarri du martxan Sormenaren Kabia ekimena, artista ezberdinek sortu, esperimentatu eta esperimentziak parteka ditzaten. Aurten ere bi proiektu saritu ditu epaimahaiak: Miriam Loidiren *Ehun-bizipenak* proiektua eta Nomad Studioko Eli Garmendia eta Carlos Pericasen *Alkizako Memoria*.

Atzo goizean egin zuten beka eskuratu duten artisten aurkezpena Alkizako plazan, baina Loidik ezin izan zuen bertaratu. Artista irundarrak *Ehun-bizipenak* izeneko lana hontzeko asmoa du, Inaki Irazabalbeitia Alkizako alkateak azaldu zuenez, «ehun baten gainean hainbat material erabilita sormen lana egin nahi du». Alkizan lehenago ere izan da Loidi, Koldobika Jauregik gidatutako Ur Marako egonaldietan hartu baitu parte. «Seguru handik ere ideiare bat sortuko zitzaiola bekara aurkezteko», esan zuen alkateak.

Hiru asteko egonaldia egingo dute artistek eta Lete landetxean hartuko dute ostatu. Egonaldia egiten lehena Loidi izango da. Urriaren 22tik azaroaren 12ra egongo da bertan, eta Nomad Studiokoak azaroaren 6tik 26ra. Horrela, astebetez elkarrekin egoteko eta aritzeko aukera izango dute, «beraien arteko sinergia sortzea ere badelako helburua». Udalak artisten eskura jarriko ditu proiektuaren ezaugarrietara egokitzen diren herriko espazio ezberdinak.

Artistek eskolako haurrekin zein herritarrekin egingo dute lan. «Behin egonaldiak eginda, aurtengo edizioak emango dituen emaitzen zain jarriko gara; espero dugu emaitza onak lortuko dituztela artistek eta gu ere sortzen dutenarekin gustura sentitzea espero dugu», gehitu zuen Irazabalbeitiak.

ATZERA BEGIRA

Argazkilariak eta sortzaileak dira Eli Garmendia tolosarra eta Carlos Pericas mallorkarra, Nomad



Nomad Studioko Carlos Pericas eta Eli Garmendia, Alkizako alkatea den Inaki Irazabalbeitiarekin batera, atzo, Alkizako plazan. I.S.A.

Studioaren atzean daudenak. Argazki estudio ibiltariarekin hara eta hona ibili dira 2021az geroztik, erretratuak atera eta hainbat lagunengatik historia eta istorioak ezagutzen. Alkizan abiatu zuten ibilbide hori, Erretratu Nomadak proiektuarekin, eta bi urte beranduago «pozik eta ilusioz» itzuliko dira Alkizara. «Guretzat leku garrantzitsua da Alkiza, Erretratu Nomada proiektua bertan abiatu genuen eta beste proiektu berri bati hasiera ematera hona itzultzeak ilusio berezia egiten digu», esan zuen Pericas. Garmendiak gehitu zuen herriz herri ibilita esperientzia ere hartu dutela, eta proiektu berri bati ekiteko Sormenaren Kabia bekara aurkezteko aukera ona iruditu zitzaiela.

Itzulera honetan, duela bi urte hasitakoari jarraipena egitera datozela esan zuen Garmendiak: «Oraingoan, Alkizari proposatzen dioguna da aurreko proiektuaren jarraipena egitea; bere garaian, orainaldiaz aritu ginen herritarren erretratuak eginez, eta orain iraganaz hitz egingo dugu». Argazkiak, pertsonak eta herria izango dira *Alkizako Memoria* proiektuko protagonistak, baina iraganean jarri nahi izan dute begirada.

Deialdi bat egingo dute herritarren artean, argazki zaharrak eskatzeko. «Alkizarekin lotura duten argazkiak bildu eta digitalizatu nahi ditugu, arkitektura aldetik lotura dutenak, pertso-

nak ageri direnak, natura, jaiak... horrelakoak jaso nahi ditugu, gero guk aukeratzeko». Argazkia digitalizatzeaz gain, argazki horien atzean dauden istorioak ere jasoko dituzte, audio bidez. «Horrela, Alkizako euskara jasoko dugu eta Alkiza askotariko herrira denez, beste herrietako pertsonen hizkerak ere jasotzeko aukera emango digu horrek». Behin material guztia bilduta, fanzine baten formatua eman nahi diote lanari, non garai desberdinetako Alkizako argazkiak eta haien istorioak elkarrekin ikusi eta entzun ahalko diren. «Alkiza zer izan den eta gaurdaino nola izan den biltzeko asmoarekin goaz egonaldira», zioen tolosarrak.

Ehun baten gainean hainbat material erabilita sormen lana egingo du Miriam Loidi artistak

Nomad Studiokoak iraganera begira jarriko dira, argazki zaharrak eta istorioak uztartuz

Argazkilari eta sortzaileak izan arren, ekintza komunitarioak izan daitezkeen laguntzaile lanak egiten dituztela maiz kontatu zuten. «Herritarren inplikazioarekin, denen artean zerbait

politik sortzeko ideia daukagu buruan eta horixe egin nahi dugu».

BIDEO BIDEZ JASOTA

Eskaini bakarrik ez, antolakuntzak saria eskuratu duten artistei eskatu die lana nola egingo duten erakustea ere, bai alkizarrei eta baita bertaratutako bisitariei ere. Horrez gain, Unai Sorarrain herritarrek ikus-entzunezko bana ekoiztuko du proposamenak ezagutzera emateko, eta bideo horiek jendaurrean aurkeztuko dituzte abenduaren 21ean. Artistak ere bertan izango dira.

Eragile ezberdinen arteko elkarlanari esker antolatu du seigarren urtez jarraian beka Alkizako Udalak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Fagus Alkiza interpretazio zentroak, Herri Ostatuak, Lete landetxeak, Inazio Urruzola txakolindegia, Ekotalok eta Ur Mara museoak hartzen dute parte egitasmoan.

Berrobira Krosa bere hogeigarren aldira iritsiko da larunbatean

Arratsalde izango da, eta helduentzako zein haurrentzako probak egongo dira; 'Herrikrosa.eus'-en eman daiteke izena

Imanol Garcia Landa Berrobi

Larunbat arratsaldean egingo da Berrobira Krosa eta urteurren biribilera iritsiko da aurtengoan, 20. aldia izango baita Berrobin lasterketa antolatzen dutena. «Garrantzia du horrelako zenbakietara iristeak, are gehiago Berrobi bezalako herri txiki batean», esan du Garazi Goenaga antolakuntzako kideak. «Kanpoko jende asko etortzen da ere eta horrek eragiten du herrikoak lanean jarri eta parte hartzaile gehiago izateak». Ibin Kirol Elkartek antolatzen du lasterketa.

Aurten berritasuna haurren izen ematean izaten ari da. Orain arte bakarrik egunean bertan egin zitekeen, eta aurten Internet bidez ere egin ahal da. *Herrikrosa.eus* webgunean eman daiteke izena, eta helduen lasterketan izena eman nahi dutenek bakarrik Internet bidez egin ahalko dute. Larunbatean 14:00ak arte egongo da zabalik aukera hori. Haurren kasuan, Internetez egiteaz gain, egunean bertan plazan eman ahalko dute 15:30etik aurrera. «Azken unean parte hartzera animatu daitezkeen haurrei eman nahi diegu aukera», zehaztu du Goenagak.

Haurren lasterketak 16:00etan hasiko dira. Ordu horretan aurrebenjaminen proba hasiko da eta 400 metro egingo dituzte. 16:10an abiatuko dira benjami-



Hainbat korrikalari iazko Berrobira Krosean. IRATISAIZAR

nak, 800 metro egiteko. 16:20ean alebinen txanda izango da, eta 1,5 kilometro egingo dituzte. 16:30ean infantil eta kadete mailakoak abiatuko dira, eta ibilbideak hiru kilometro ditu. Parte hartzaileek domina jasoko dute eta lehen hirurek garaikurra.

Helduen proba 17:00etan jarriko da martxan eta ohiko ibilbidea izango du: bost itzuli egingo dira herrigunea alde batetik bestera zeharkatuz, guztira 7,5 kilometro burutzeko. Lehen sailkatuak, bai emakumezkoetan zein gizonezkoetan, 100 euro jasoko ditu eta garaikurra, eta bigarrenak, hirugarrenak eta lehen herritarrek garaikurra izango dute. Lasterketaren bukaeran ogitar-teko bat izaten dute haurrek, eta helduek mokadutxo hartzeko aukera.

Berrobira Krosa ez dela hartzen lasterketa erraz moduan esan du Goenagak: «Aldapan behera eta gora egiten dute korrikalariak, eta aldapa gora diren zatia gogorak egiten zaizkiela esaten dute». Hori bai, bost itzuli izateak jendearen animoak jaso-tzeko aukera ugari eskaintzen dizkie lasterkariei.

Iazko proban helduetan 70 korrikalari inguru izan ziren, eta haurretan parte hartzaile ugari izan zirela azaldu dute antolakuntzatik. «Ea eguraldiak laguntzen duen pixka bat, eta larunbatean ere jende ugari etortzen den Berrobira», esan du Goenagak. Ibin Kirol Kluba lau pertsonen artean dinamizatzen dute, eta egunean bertan beste hamabost bat laguntzaile elkartzeko dira lasterketa aurrera eramateko.



SARIA ETXEKOENTZAT

Intxurre futbol taldeak 3. Bertako Igogailuak Saria torneo irabazi zuen larunbatean Segura taldearen aurka, Elorri futbol zelaian. Lau partida jokatu zituzten, bi jubenil mailan, bat kadeteetan eta bestea infantiletan. Alegiako klubak bi partida irabazi, bat galdu eta beste bat berdindu zuen. «Giro ederrean eta kiroltasunez pasa genuen eguna, eta eskerrik asko Segura taldeari izandako portaerarengatik», azaldu dute Intxurre klubeko ordezkariak. PATXIRENOBALES

Alpino Uzturreko gazteak, bikain gurpil gaineko eskian

Erredakzioa Tolosa

Alpino Uzturre Elkarteko eskia-tzaileak negura begira jarri dira eta prestaketa lanetan hasiak dira. Asteburuan, gurpil gaineko eski txapelketak jokatu zituzten. Larunbatean, Candanchun erai-ki berri den asfaltoko zirkuituan, esprint mailako Espainiako Gurpil Gaineko Eski Txapelketak izan ziren eta 14 urtez azpikoen mailan, emakumeen kategorian, Inge Arin Salazarrek urrezko domina lortu zuen.

Igandean, Espainiako Kopara-

ko puntuagarria den distantzia-ko lasterketa jokatu zen Jakan. 14 urtez azpikoen mailan, emakumeen kategorian, Libe Curras Salazar izan zen irabazlea eta Inge Arin Salazar hirugarren helmugaratu zen. 16 urtez azpikoen mailan, emakumeen kategorian, June Aranburu Arregi izan zen garailea. «Gustuko hasiera izan dugu eta udazkeneko hiru hila-beteetan izango diren beste gurpil gaineko eski lasterketetarako animoz beteta gaude», adierazi dute Alpino Uzturre elkarteko prestatzaileak.

Belabieta Kirol Kluba martxan jarri da

IBARRA // Belabieta Kirol Klubak eman dio hasiera 2023-2024 denboraldiari. Gimnasia gozatzeari, talde lana sustatzea eta pantaila gabeko gune bat sortzea dira klubaren helburuak. Adin guztietarako dute eskaintza, eta izena eman edo informatzeko 621 02 21 05ra deitu edo belbietagimnasia@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Bestalde, igandean Gasteizko San Andres kiroldegian udazkeneko txapelketa nazionala jokatu da eta bertan parte hartuko du oinarritzko jubenil taldeak.

Bateletan izena emateko aukera

ARRAUNA // Tolosaldeko Arraun Kluba (TAK) datorren denboraldira begirako prestaketa lanak egiten ari da. Hori horrela, bateletan parte hartu nahi duten neska-mutilei deialdia egin die izena emateko. Horretarako interesa duenak Tolosako Zerkausiaren azpian dagoen ontzira-lerakura joan behar dute. Horretarako egunak datorren astelehenetik (irailak 18) ostirala (irailak 22) bitarte izango dira, biak barne. Ordutegiari dagokionez, 18:00etatik 19:00etara izango da aukera.

Irene Iturria garaile, X. Axari Trail mendi lasterketan

Erredakzioa

Igandean jokatu zen Idiazabalen X. Axari Trail Mikel Garmendiarren oroimenezkoa mendi lasterketa. 140 parte hartzaile inguru izan ziren ibilbide luzean (25,4 kilometro); ibilbide laburrean (16,4 kilometro), berriz, 230 korrikalari. Eskualdeko korrikala-

riak podiumean izan ziren. Ibilbide laburrean, Alpino Uzturre taldeko Irene Iturria bidaniarra izan zen azkarrena emakumezkoetan. 1.34.48ko denbora egin zuen proba irabazteko. Gizonezkoetan, Oier Zubeldia amezketarra bigarren helmugaratu zen (1.16.00), irabazlearengandik lau minutu pasatxora. Luzean, be-

rriz, emakumezkoetan, Soronea-Amma taldeko Oihana Zubillaga anoetarra hirugarren izan zen (2.51.42).

Goierrri Kopako sailkapen orokorra ere erabakita geratu zen igandeko lasterketaren ondoren. Esprint modalitatean, gizonezkoetan, Mikel Gabirondo irurarra bigarren izan da.



ASTEAZKENA, 2023KO IRAILAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



ASTEAZKENA 13

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Biblioporrak txokoa 0-16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako ipuin eta liburuz osatuta dago eta haur liburutegiko hirugarren solairuan egongo da irailako azken egunera arte. Irailan, 17:00etatik 20:00etarako ordutegian egongo da eskuragarri.

Erakusketak

Tolosa. Txotxongilo iberiarra Topic zentroko Anbiguan. Tolosako txotxongilo museoari oso modu berezian lotuta egon diren eta dauden konpainien kartel eta txotxongiloek osatutako bilduma da. Besteak beste, Titiriteros de Binéfar, La Fanfarra, Jordi Bertran, La Tía Norica, Txotxongilo taldea, Búho Maravillas, Retablo de figurillas, Anita Maravillas, Bihar Txotxongilo Antzerkia, L'Estaquirot, Teatro de Marionetas de Oporto eta Bonecos de Santo Aleixo konpainien lanak ikusgai izango dira.

Tolosa. Mugarik gabe zizelkatzen. Grenzeloos Beeldhouwen, Aranburu jauregia. Herbehereetako eta Euskal Herriko 57 eskultoreren obrak. Euskal Herriko Azken Muga eta Eskuahaldunak eta Herbehereetako Kunstgilde eta Stichting elkarrean lankidetzari esker osatuak.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musikaz gozatzeko aukera izango da egun osoan zehar.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.
Ignacio Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro tristea izango dugu. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira eta tarteka euri zaparrada batzuk izango dira. Egurditik aurrera pixkana atertzen hasiko da, azken orduetan ateri geratuko delarik, tarteka ostarate batzuekin. Ipar-haizeak jarraipena izango du eta tenperaturan ez da aldaketarik emango, 23-24 graduan joz goia.



Bihar. Giro ederra. Goizean hodeiak eta ostarateak tartekatuko dira, baina orduak aurrera egin ahala ostarateak nagusitzen joango dira eta arratsaldean giro eguzkitsua eta ederra nagusituko zaigu. Ipar-ekialdeko haizeak joko du eta tenperaturak gora egingo du, 25-27 graduan joz goia egunaren erdiko orduetan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



KONPLIZEAK

'Ataria'-ren Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea amaituta, bozka emateko tartea dago zabalik orain. Ataria.eus-en argazki lehiaketaren atalean daude ikusgai aurkeztu diren argazki guztiak, eta bertan eman daiteke hiru argazki gustukoenei bozka. Datorren asteazkena, hilaren 20ra bitarteko epea egongo da horretarako, eta orduan geratuko da zehaztuta Ataria.eus-eko erabiltzaileen irabazlea. ATARIA-ko kideek epaimahaiaren saria zehaztuko dute, eta zozketa bidez jakingo da zein izango de Atarikide sariaren irabazlea.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



Udako argazki lehiaketa

Epaimahaiaren saria

ARRI STUDIOA
Argazki ikastaroa

Zure maila edozein dela ere,
3 orduko bakarkako ikastaroa
Arri Studioaren eskutik

Aroztegieta kalea 11, Tolosa
arristudioa.com · 943 67 17 17

ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria

Albizturko Ostalua

Lau pertsonarentzako
asteburuko menua
Albizturko Ostaluan

Herriko Plaza, Albiztur
943 00 59 22

atarikide saria



Arri Studioak egindako
barruko argazki sesioa

Aroztegieta kalea 11, Tolosa
arristudioa.com · 943 67 17 17

Bozkatu
gustukoena



Ataria.eus

